

## *Etxean Kontu Kantari*

### **2016ko urtarrila.**

#### Maro Marotxu

Maro Marotxu,  
Eragiozu eskutxoari  
behin batari eta  
behin besteari...

Zubizarreta, I. (2007). *Bularretik Mintzora*. Galtzagorri elkarte.

Oharra: Eskua eragin haurren aurpegi aldean begira dezan. Kantu hau oso ezaguna den “Eragiozu eskutxoari”ren parekoa da. Begiak bideratzen hasteko erabili daiteke giza-mobil baten gisa.

#### Xango-Mango

Zubizarreta, I. (2007). *Bularretik Mintzora*. Galtzagorri elkarte.

Xango-mango, haurra nongo?  
Ona bada etxerako, txarra bada putzurako.

Oharra: Belaun gainean trostan erabiliko da haurra; bukaeran, belaunak ireki eta “erortzen” utzi.

#### Bat, Patxi Parrat

Zubizarreta, I. (2007). *Bularretik Mintzora*. Galtzagorri elkarte.

Bat, Patxi Parrat.  
Bi, Patxi ipurdi.  
Hiru, Patxik badu diru.  
Lau, atsoak agurea nahi dau.  
Bost, klask eta klosk.  
Sei, etxea bete behi.  
Zazpi, etxea bete zapi.  
Zortzi, etxea bete zorri.  
Bederatzi, etxea bete baratxuri.  
Hamar, txakurrak mar-mar.

Oharra: Hamar atzamarrak zenbatzeko, errima jokoak egiteko...



### Marigorri

Zubizarreta, I. (2010). *Sasi guztien gainera*. Galtzagorri Elkartea.

Marigorri  
Xurigorri,  
Fil, fil, fil.  
Bihar euri ala eguzki?  
Fil, fil, fil

Kantatxo hau amona mantagorri bat eskuan dugula kantatzen dugu. Kantaren ondoren putz egiten zaio, hegan hasten bada euria egingo duenaren seinale... edota alderantziz?

### Barrez eta negarrez

Zubizarreta, I. (2007). *Bularretik Mintzora*. Galtzagorri elkartea.

Barrez eta negarrez  
Ezkondu beharrez.  
Zeinekin eta norekin?  
Soldadu zahar batekin.  
Negar eta barre,  
Kaka berde.

Burlan-burlan, barreari eragiteko kantutxo bat da...



### *Txorietan politena txantxangorria*

Zubizarreta, I. (2010). *Sasi guztien gainera*. Galtzagorri Elkartea.

Txorietan politena txantxangorria,  
Txorietan argiena txantxangorria.  
Kanta-kanta soroan harroturik lepoa,  
Haren txio gozoak alaitzen du basoa.

Txorietan politena txantxangorria,  
Txorietan argiena txantxangorria.  
Mutil mukitsu batek bota dio harria.  
Erori da gaixoa, gaixoa heria.

Txorietan politena txantxangorria,  
Txorietan argiena txantxangorria.

Melodia oso ederra duen kantua duzue hau, hantu kantari aritzeko.

### *Kukurruku!*

Zubizarreta, I. (2007). *Bularretik Mintzora*. Galtzagorri elkartea.

Kukurruku!  
-Zer diozu?  
-Buruko min.  
-Zeinek egin?  
-Axeriak.  
-Axeria non da?  
-Txotxak biltzen.  
-Txotxak zertarako?  
-Sua pizteko.  
-Sua zertarako?  
-Amona berotzeko.  
-Amona zertarako?  
-Oiloari jana emateko.  
-Oiloa zertarako?  
-Arrautza egiteko.  
-Arrautza zertarako?  
-Gu guztiok jateko.

Elkarrizketa moduan esan behar da egituratxo hau. Eredutuz bilakatuko da beste istoriotxo berri bat asmatzeko.